

EUSKAL ONDARE KULTURALAREN MOLDATZEA (1960-1990), EGUNGO KULTUR SISTEMAREN OINARRI. BALIABIDE ETA FORMA SINBOLIKOAK

Tesiaren egilea: Ana Gandara Sorarrain

Unibertsitatea: Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

Saila: Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Saila

Tesi-zuzendaria: Iñaki Aldekoa Beitia

Tesiaren laburpena:

Egungo Euskal Kultur nahiz Literatur Sistemen izana ulertu ahal izateko, ezinbertzekoa da euskal baliabide sinboliko garaikideak instituzionalizatu ziren garaiari erreparatzea. Ideia horretatik abiatuta, tesiaren helburua da euskal komunitateak bizi izan duen azken kultur birmoldaketa nagusia ulertzea. Hala, bada, komunitatearen eta kultur ondarearen 1960-1990 bitarteko harremanari behatu diogu, tradizioaren birmoldatzean funtsatu dugularik ikerlana.

Aztergune gisa euskal komunitatea eta tradizioa aukeratu izanak behartu gaitu bien izana espresuki lantzeko egokiak diren alderdi teorikoak erabiltzera. Estaturik gabeko komunitateen azterketarako, Anthony D. Smith eta Monserrat Guibernau adituen eskutik, etno-sinbolismoaren oinarrietatik abiatu gara. Gainera, forma sinbolikoez aritzeko, John B. Thompson soziologoak proposatzen duen kulturaren ulertze sinbolikoan oinarritu gara. Zernahi gisaz, hasieratik izan zen nabaria ez zegoela komunitateen ondare metatu subjektiboa osatzen duten baliabide sinbolikoak aztertzeko metodologia teoriko finkorik. Hori dela-eta, etno-sinbolismoak lantzen dituen baliabide sinbolikoak ikertzeko bereziki egokitzen den lanabes multzo teorikoa proposatu dugu, hain justu, John B. Thompsonen forma sinbolikoendako deskribatzen dituen tresna teorikoetatik abiatuta.

1960-1975 bitartean, euskal kulturaren berreskuratze-garaia gailendu zen, eta, 1975-1990 bitartean, aldiz, berreskuratu berria zen ondarearen instituzionalizatzeko prozesua. Fase horietatik bakoitzean, hiru ardatzen ikerketa bateratua egin dugu, hamabortzaldi bakoitzaren lanketarako eskema paraleloa erabiliz. Batetik, komunitateak ondarearekiko izan zuen harremana aztertu dugu; lotura hori ikertu izanak ahalbidetu digu harreman horren maila desberdineko islak miatzea. Bertetik, landu ahal izan ditugu komunitatearen eta ondarearen arteko erlazioan mugarri izaniko baliabide sinbolikoak eta horien agerguneen garapena: baliabide sinboliko gisa tradizioa hautatu dugu, eta, horren agergune gisa, Ahozko Ondare Kulturala nahiz literatur tradizioa miatu ditugu. Horien azterketarekin —ikergai bakoitzaren

izana eta garapena erakustez harago—, Euskal Kultur Sistema garaikidearen oinarriak nola egituratu eta ondu ziren hausnartu dugu.

Proposaturiko eskema teorikoa tradizioaren gauzatze zehatzen azterketarako baliatu dugu. *Zeruko Argia*, *Anaitasuna* nahiz *Pott* aldizkarietako lekukotasunek eta Mikel Laboa, Joseba Sarrionandia, Bernardo Atxaga eta Jon Juaristiren lanek, bertzeak bertze, lagundu digute ulertzen tradizioak 1960-1990 bitartean izaniko garapena. Adibide horiek ederki islatzen dituzte tradizioaren birmoldatze-prozesua eta garapen horretan izaniko fase bakoitzaren izana.

Akitzeko, hiru ondorio multzo ditu tesiak: lehenik, tradizioaren azterketarako proposatu behar izan ditugun lanabesetatiko ondorio teorikoak laburbildu ditugu; segidan, egokitzapen teoriko horietatik abiatutako ikerketa praktikoak agerrarazi dituen ideiak bildu ditugu; azkenik, etorkizun hurbil nahiz urrunean abiatu beharreko azterketetarako giltzak izan litezkeenak identifikatu ditugu.